



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

TXOSTENA, BARRUALDEEN DEKORATZAILEEK ETA DISEINATZAILEEK OBREN PROIEKTUAK EGITEKO ETA OBRAK ZUZENTZEKO GAITASUN TEKNIKOA EDUKITZEARI BURUZKOA

228-SUST-2018 LEA/AVC

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK, XEDEA ETA LEA-REN ESKUMENA	1
II. ERAIKINETAN OBRAK PROIEKTATU ETA ZUZENTZEKO ESKUMEN PROFESIONALAK: BARNEALDEEN DEKORATZAILEAK.....	2
III. EAE-KO UDALAK, ETA OBRA TXIKIAK PROIEKTATU ETA ZUZENTZEKO JARDUERA-ERRESERBAK	8
IV. ONDORIOAK	10

Osoko bilkura

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Enara Venturini Alvarez andrea, kidea

Idazkaria: María Lourdes Muñoa Corrales andrea

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2018ko otsailaren 6ko bileran, goian adierazitako osaearekin, txosten hau eman du, 228-SUST-2018 espedientean, dekoratzaileek eta diseinatzaileek obren proiektuak zuzentzeko eta obrak zuzentzeko gaitasun teknikoa duten jakiteko galderaren inguruan.

I. AURREKARIAK, XEDEA ETA LEA-REN ESKUMENA

1. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Dekoratzailen Elkargo Ofizialek (elkargoak) Lehiaren Euskal Agintaritzari (**LEA**) txosten bat egin dezan eskatu diote, barnealdeko dekoratzaileek eta diseinatzaileek dagozkien eskumenen barruan obren eta jardueren proiektuak sinatzeko gaitasun teknikorik duten argitzeko.



2. Elkargoek diotenez, elkargokideen kexa ugari jaso dituzte udal-teknikariek oztopo asko jartzen dituztelako dekoratzaile elkargokideek sinatutako obren eta jardueren proiektuak baimentzeko orduan¹. Elkargoen iritziz, udal-organoen jardunean iritziaren arabera jokabidea dagoela azaleratzen du horrek, eta barne-diseinuko profesionalak kalte larria egiten die, jarduera-erreserba ezartzen laguntzen ez ezik eraikingintzat hartzen den eremua handitzen baitu argi eta garbi barne-diseinua denaren kaltetan.

3. Eskaera horren ondorioz, dekoratzaile elkargokideek sinatutako obra- edo jarduera-proiektuak baimentzea ukatu zuten toki-administrazioen zerrenda eskatu zien LEAk Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Dekoratzailen Elkargoek, ukapen bakoitza zehaztuta. Elkargoek eskaera hori bete zuten.

4. Txostena LEAk eman du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruko lehia askearen inguruko gaien aholku-organo gisa, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen 3.5 artikuluan ezarritakoarekin bat eginez².

II. ERAIKINETAN OBRAK PROIEKTATU ETA ZUZENTZEKO ESKUMEN PROFESIONALAK: BARNEALDEEN DEKORATZAILEAK

5. Barnealdeko dekoratzaileek Dekoratzailen Eskumen Profesionalak arautzen dituen 902/1977 Errege Dekretuaren 2. artikulua emandako eskumen hauek erabiliz ematen dituzte zerbitzu profesionalak³:

- a) Dekorazio-proiektuak formulatu eta idaztea, eraginkortasun juridikoz eta erabateko erantzukizunez, baldin eta honako hauek eragiten ez badiete: nahitaezko administrazio-lizentziak jaso dituen proiektu onartuan zehaztutako egiturazko elementu erresistenteei, eraikuntzaren konfigurazioari edota obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei.

¹ Elkargoek lizentzia ukatu duten udalen kasu batzuk zerrendatu dituzte, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaz gain epaitegien eta auzitegien erabakia ere jaso dutenak. Halaber, Arartekoak eta Gasteizko Sindiko-Herritarren Defendatzaileak ebatzitako kexak ere aipatu dituzte.

² 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa. 2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk. Hemen eskuragarri: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/legislacion_normativa/eu_normativ/adjuntos/1-2012%20Legea.pdf.

³ 902/1977 Errege Dekretua, Dekoratzailen Eskumen Profesionalak arautzekoa. 1977ko maiatzaren 3ko BOE, 105. zk.



- b) Dekorazio-lanak zuzentzea aurreko letrako mugen barruan; horietan esku hartzen duten elementu guztiak koordinatzea eta irtenbide egokiak zehaztea; horiek gauzatzeko lana programatu, kontrolatu eta ziurtatzea.
- c) Dekorazio orori aplikatu beharreko elementuen diseinuak asmatzea.
- d) Dekorazio-lan horietan esku hartzen duten materialen eta elementuen kalitatea kontrolatu eta baloratzea.
- e) Dekorazio-proiektuen eta -lanen gaineko balorazioak, aditu-azterlanak, txostenak eta irizpenak egitea.

6. Eskumen profesional horiek eraikitzeke prozesutik kanpo erabiltzen dira, eta adierazitako araudian ezarritako mugak dituzte. Hala, muga horiek direla eta, barnealdean dekoratzaileek obra- eta jarduera-proiektu txikiak egiteko gaituta daude⁴.

7. Eraikuntzan, Eraikuntzaren Antolamendurako Legeak (EAL)⁵ lanbide tekniko jakin batzuei –barnealdean dekoratzailearenari ez beste batzuei– eskumenak ematen dizkie eraikitzeke prozesuan esku hartu ahal izateko; eraikuntzen kalitatea zein erabiltzaileen interesak babestea bermatzeko, hain zuzen ere.

8. Era horretan EALek lanbide tekniko jakin baten aldeko eskumen-monopolioa baztertzen du, egileak sinatzen dituen proiektuen motari eta kategoriarri dagokien ezagutza-maila babesten duen goi-mailako titulu ofizial oro sartzeko aukera zabalik uzten baitu.

9. Proiektua idazteko eskumenak izango ditu arkitekto, arkitekto tekniko, ingeniari edo ingeniari teknikoko titulazio akademiko eta profesional gaitzailea duenak, dagokionaren arabera (eraikuntzaren erabilerak aintzat hartuta)⁶.

⁴ Auzitegi Gorenaren 1994ko uztailaren 19ko epaiak laugarren zuzenbide oinarrian adierazten duenez: Doktrinak eta jurisprudenziak obra txikitat hauek hartzen dituzte: higiezin baten egiturari edo elementu sostengatzaileei eragiten ez dieten horiek, hala nola finkak itxi eta hesitzeko lanak, terrazak estaltzea, argizko iragarkiak, eta, horrez gain, profesional tituladunek sinatutako proiekturik edo aurrekontu handirik behar ez dutenak teknikoki errazak direlako, eraikuntza-lan handirik eta diru askorik eskatzen ez dutelako, edota konponketa, dekorazio edo itxitura soilak direlako [Auzitegi Gorenaren epaiak: 1986ko abenduaren 10ekoa (1987/1035 JB), 1987ko martxoaren 17koa (1987/3777 JB), 1987ko ekainaren 5ekoa (1987/6093 JB) eta 1988ko ekainaren 15ekoa (1988/4384 JB)] (....).

⁵ 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa. 1999ko azaroaren 6ko BOE, 266 zk. Bertsio bateratua eskura, hemen: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1999-21567>.

⁶ Sustatzailearen eskariz eta dagokion araudi teknikoari eta hirigintzakoari jarraikiz proiektua idazten duen eragilea da proiektugilea.



Eraikuntza-proiektua indarrean den araudiari eta kontratuan ezarritakoari jarraikiz idatziko du, eta kasuan-kasuan nahitaezkoak diren oniritziekin entregatuko du.

10. Obra zuzentzeko⁷ eskumenak izango ditu arkitekto, arkitekto tekniko, ingeniari edo ingeniari teknikoko titulazio akademiko eta profesional gaitzailea duenak, dagokionaren arabera, eta lanbidean aritzeko behar diren baldintzak betetzen dituenak⁸. Eskumen horiek erabiliz,

- a) Zuinketa egiaztatuko du, baita proiektatutako zimendura eta egitura lursailaren ezaugarri geoteknikoetara egokitzen direla ere.
- b) Obrako gertaerei erantzungo die, eta aginduen eta laguntzen liburuan idatziz jasoko ditu proiektua zuzen interpretatzeko behar diren jarraibideak.
- c) Sustatzailearen eskariz edo hark onartuta, proiektuak izan litzakeen aldaketak egingo ditu, obraren bilakaerak hala eskatzen duenean, baldin eta proiektua idaztean kontuan hartu eta jasotako arau-xedapenetara egokitzen badira.
- d) Zuinketaren edo obra-hasieraren akta zein obraren amaierako ziurtagiria sinatuko ditu; halaber, gauzatutako obra-unitateen ziurtagiri partzialak eta amaierako likidazioa egingo ditu, kasuan-kasuan nahitaezkoak diren oniritziak lortuta.
- e) Gauzatutako obraren agiriak egin eta sinatuko ditu, sustatzaileari kasuan-kasuan nahitaezkoak diren oniritziekin batera emateko.

11. Obra egiteko lana zuzentzeko eskumenak honek izango ditu: arkitekto, arkitekto tekniko, ingeniari edo ingeniari teknikoko titulazio akademiko eta profesional gaitzailea duenak, dagokionaren arabera, eta lanbidean aritzeko behar diren baldintzak betetzen dituenak. Pertsona juridikoei dagokienez,

⁷ Obra-zuzendaria: zuzendaritza fakultatiboko kide izanda, obraren garapena ikuspegi tekniko, estetiko, urbanistiko eta ingurumenekotik zuzentzen duen eragilea, betiere berau definitzen duen proiektuaren, eraikitze baimenaren eta beharrezkoak diren gainerako baimenen eta kontratuko baldintzen arabera, dagokion xedera egokitzen dela ziurtatzeko.

⁸ 2. artikuluko 1 zenbakiko a) taldean adierazitako erabileretarako eraikinak egiteko, arkitektoarena da horretarako gaitzen duen titulazio akademiko eta profesionala. Egin beharreko obrek 2. artikuluko 1 zenbakiko b) taldean adierazitako eraikuntzak egitea badute xedetzat, horretarako gaitzen duen titulazioa, oro har, ingeniari, ingeniari tekniko edo arkitektoarena izango da, eta lanbide bakoitzerako indarrean diren legezko xedapenek zehaztuta egongo da, haren espezialitate eta eskumen espezifikoekin bat etorritik. Egin beharreko obrek 2. artikuluko 1 zenbakiko c) taldean adierazitako eraikuntzak egitea badute xedetzat, horretarako gaitzen duen titulazioa arkitekto, arkitekto tekniko, ingeniari edo ingeniari teknikoarena izango da, eta lanbide bakoitzerako indarrean diren legezko xedapenek zehaztuta egongo da, haren espezialitate eta eskumen espezifikoekin bat etorritik.



titulazio profesional gaitzailea duen teknikaria izendatu behar da obra zuzen dezan⁹. Eskumen horiek erabiliz:

- Eraikuntzako produktuak obran hartzea egiaztatzea, eta behar diren saiakuntzak eta probak egin daitezzen agintzea.
 - Obra egiteko lana zuzentzea, eta zuinetak, materialak, eraikuntzako elementuen zein instalazioen antolaketa eta erabilera zuzena egiaztatzea, proiektuari eta obra-zuzendariaren instrukzioei jarraikiz.
- Aginduen eta laguntzen liburuan behar diren jarraibideak idatziz jasotzea.
- Zuinetaren edo obra-hasieraren akta zein obraren amaierako ziurtagiria sinatzea, eta gauzatutako obra-unitateen ziurtagiri partzialak eta amaierako likidazioa egin eta sinatzea.
 - Gainontzeko eragileekin elkarlanean aritzea gauzatutako obraren agiriak egiteko, eta eginiko kontrolaren emaitzak ematea.

12. Barnealdean dekoratzaileek ez dute eskumenik eraikuntza-lanean parte hartzeko, hari ematen zaion erabilera edozein izanik ere.

13. Gainera, egiten eta idazten dituzten dekorazio-proiektuek, eta zuzentzen dituzten dekorazio-lanek, ezin diote eraikinaren egitura edo konfigurazioari eragin, ezta haren zerbitzu komuneko instalazioei ere.

14. Arkitekto-titulua, arkitekto teknikoaren titulua edo aparejadore-titulua duenak, berriz, egin ahal izango ditu, orobat, barnealdean dekoratzaileen eskumeneko jarduerak, otsailaren 1eko 119/1973 Dekretuak 2. artikuluan xedatzen duenez (dekretu horren bidez idazketa berria ematen zaio Dekoratzailen Estatuko Elkargo Sindikala sortzen duen martxoaren 24ko 893/1973/1972 Dekretuari)¹⁰.

⁹ Egin beharreko obren xedea bada 2. artikuluko 1 zenbakiko a) taldean adierazitako erabileretarako eraikinak egitea, arkitekto teknikoarena da horretarako gaitzen duen titulazio akademiko eta profesionala.

Hori izango da, halaber, arkitektoek zuzentzen dituzten b) taldeko obretarako gaitzen duen titulazioa.

Gainerakoetan obra-gauzapena berdin zuzen dezakete arkitekto, arkitekto tekniko, ingeniari edo ingeniari teknikoko titulazioa duten profesionalak.

¹⁰ 119/1973 Dekretua, otsailaren 1ekoa, Dekoratzailen Estatuko Elkargo Sindikala sortzen duen martxoaren 24ko 893/1972 Dekretuaren bigarren artikuluari idazketa berria ematekoa. 1973ko otsailaren 3ko BOE, 30. zk. «Bigarren artikulua. Dekoratzailen jardura legez egiteko ezinbesteko baldintza dekretu honetan sortzen den korporazio profesionaleko kidea izatea izango da. Nolanahi ere, doktore arkitekto-titulua, arkitekto teknikoaren titulua edo aparejadore-titulua dutenak eta dagokien korporazio profesionaleko kide direnak jardura horretan aritu ahal izango dira, dagozkien xedapen espezifikoei jarraikiz, aurreko lerrokadan aipatutako korporazioko kide izan beharrik gabe».



15. Auzitegi Gorenaren dotrina jurisprudentzian gaitasunarekin sartzeko askatasunaren printzipioa gailentzen zaio eskumen-esklusibotasunaren eta -monopolioaren printzipioari. Hala, teknikariek jardun dezakete tituluek egiaztatzen dieten gaitasun profesionalarekin bat etorriz, eta ez da ezinbestekoa beti hertsiki espezialista den profesionalak jardutea. Zentzu horretan, Auzitegi Gorenaren 6901/2010 epaiak honako hau adierazten du:

«(...) Jurisprudenzian joera argia dago eskumen-esklusibotasunaren eta -monopolioaren printzipioari gaitasunarekin sartzeko askatasunaren printzipioa gailendu dakion. Horren erakusgarri argia dago sala honek emandako 2006ko apirilaren 10eko epaian (2390/01 kasazioa). Hari dagokio honako lerrokada hau: "...jurisprudentziak titulu profesionaletatik eratorritako ezagutza-maila kontuan hartuz jotzen du funtsean, baina eskumen eskusibo orokor bat zehaztea baztertua (auzitegi honen 1995eko apirilaren 29ko, 1996ko urriaren 25eko edo 1998ko apirilaren 15eko epaiak), eta, auzitegi honen 1996ko abenduaren 19ko epaiak adierazten duenez, adierazi behar da teknikariek jardun dezaketela tituluek egiaztatzen dieten gaitasun profesionalarekin bat etorriz, eta ez dela ezinbestekoa beti hertsiki espezialista den profesional batek jardutea; eta, auzitegi honen beraren 1998ko maiatzaren 27ko epaiak nabarmentzen duenez, berresten da errekurritutako epaia, zeinak honako hau adierazten duen: 'Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia errepikatuak adierazten du eskusibotasunaren printzipioari gaitasundun askatasuna gailendu behar zaiola; izan ere, hezkuntza teknikoaren adar batzuen artean irakaskuntza komun oinarri bat dagoenez, horrelakoek goi-mailako tituludunei ezagutza teknikoaren mami bera ematen diete, zer espezialitate duten alde batera utzita, eta horri esker ezagutza jakin batzuen ordez gaitasun tekniko komun eta orokor bat behar duten lanpostuetan jardun dezakete, gaitasun hori ez baitator lortutako egoera espezifikotik, egin dituzten ikasketak guztietatik baizik'...».

Zentzu berekoak dira gure 2006ko azaroaren 13ko (5049/01 kasazioa), 2007ko otsailaren 2ko (6329/01 kasazioa) eta 2007ko martxoaren 5eko (426/02 kasazioa) epaiak, zeinetan sala honen beraren eta 7. Atalaren beste erabaki batzuk aipatzen baitira (1987ko urriaren 21ekoa, 1980ko maiatzaren 27koa, 1981eko uztailaren 8koa, 1985eko apirilaren 1ekoa, 1987ko urriaren 27koa, 1989ko martxoaren 9koa, 1989ko apirilaren 21ekoa, 1990eko urriaren 15ekoa, 1991ko urtarrilaren 14koa, 1991ko ekainaren 5ekoa eta 1998 maiatzaren 27koa), baita Konstituzio Auzitegiaren 50/1986, 10/1989, 27/1991, 76/1996 eta 48/1998 epaiak ere. Epai horiek berresten dute egungo orientazioek ihes egiten diotela monopolio profesionalak duten tituluagatik bakarrik aldarrikatzeari, eta ezagutza teknikoaren maila nahikoa babesten duen titulu fakultatibo oro sartzeko aukera utzi beharra defendatzen dutela».



16. Gainera, Auzitegi Gorenak behin eta berriz onartu du arkitekto teknikoek eta barnealdean dekoratzaileek eskumena dutela obrak proiektatu eta egiteko, baldin eta ez badiete eragiten egiturazko elementuei, eraikuntzaren konfigurazioari edo obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei (arkitektoek jarduera horiek eraikinen barruan garatzeko duten eskumenaz ez dago zalantzarik). Besteak beste, Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 1987ko martxoaren 30ekoa, 1987/4168 JB, Laugarren zuzenbideko oinarrian¹¹:

«(...) Sala honek jada aztertu ditu manu horiek 1986ko urriaren 16ko epaian (1986/6553 JB) eta 1985eko urtarrilaren 19ko epaian (1985/450), hauek berrienak izanik, non esan baita, egin nahi diren obrek ez badiete eragiten egiturazko elementu erresistenteei, eraikuntzaren konfigurazioari edo obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei, Proiektu Teknikoa berdin baimen dezaketela dekoratzaileek, aparejadoreek edo arkitekto teknikoek; eta **lehendik zegoen higiezinako aipatutako lokala egokitu eta dekoratzeko baimendutako obrek** haren egiturazko elementuei edo obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei eragiten ez zieten, argi zegoen aparajadoreak baimentzea egokia zela, administrazio-egintzek eta apelatutako epaiak behar bezala iritzi zioten moduan; hala, bada, epai hori berretsi eta jarritako apelazio-errekurtsua atzera bota behar da».

17. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (Administrazioarekiko Auzien Sala) 1244/2000 epaian, abenduaren 29koan, Hirugarren zuzenbideko oinarrian, honako hau adierazten du:

«Azaldutako arau-koordinatuak, proiektuaren egilearen tituluaren eta Arte Plastikoen eta Diseinuaren Goi Mailako Teknikariaren titulazioen arteko baliokidetasuna eta proiektatutako obren ezaugarriak ikusita, egiturei edo obra komuneko instalazioei ez baitiete eragiten, ondorioztatu behar dugu duen tituluak (...) **eskumena ematen ziola proiektua egiteko; izan ere, proiektatutako behe-tentsioko eta isolamenduko aurreikuspen elektrikoak, egokitzeko gainerako elementuekin batera, eta isolamendu akustikoaren eta suteen kontrako babesaren arloko eraikuntzako oinarritzko arauen justifikazioa, ez ziren bereziki konplexuak, are gehiago lokal txikia, 80 metro koadrokoa, zela kontuan hartuta, eta zegozkion ur-, argi- eta estolderia-harguneak zituela**, eta, horregatik, administrazio-ebazpena ez da zuzenbidearen araberakoa».

¹¹ Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako 2. Atalaren Epaia, 1987ko martxoaren 30ekoa (1987/4168 JB); Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 1985eko urtarrilaren 19koa (1985/450 JB); Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 1986ko urriaren 16koa (1986/6553 JB). Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 1987ko apirilaren 1ekoa (1987/4168 JB); Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 1987ko apirilaren 6koa (1987/4229 JB); Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 1987ko azaroaren 23koa (1987/9289 JB); Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 1989ko ekainaren 6koa (1989/4505 JB); Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 1999ko apirilaren 23koa (1999/3999 JB);



18. Ildo beretik, Extremadurako Justizia Auzitegi Nagusiaren 10/2002 Epaiak, irailaren 12koak, 4. zuzenbideko oinarrian:

«(...) Barnealdean dekoratzaileen eskumenen esparruari ez dio eragiten, kasu honetan, [Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak](#) (azaroaren 5eko 38/1999); izan ere, azaldu dugunagatik, eta Legearen 2.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ez gaude eraiki berriko eraikuntza-obra baten aurrean, ezta eraikinaren konfigurazio arkitektonikoa aldatzen duten handitzeko, aldatzeko, erreformatzeko edo eraberritzeko obren aurrean ere, halakotzat hartuta esku-hartze osokoak edo partzialak, baldin eta kanpoko konposizio orokorra, bolumetria edo egitura-sistema osoa funtsean aldatzea badakarte, edo xedetzat eraikinaren berezko erabilerak aldatzea badute. Jada altxatuta dagoen eraikin baten barneko espazioa egokitzeko edo berriz banatzeko obrak dira, eta proiektua egin duen dekoratzaileak lokalerako erabilera berria barneko dekorazioaren bidez definitu dezake, eta horrek espazioa berriz antolatzea dakar, kanpoko itxitura-elementua barne, baina proiektuak ez die inola ere eragiten egiturazko elementuei, eraikinaren konfigurazio orokorrari edo obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei. Azken batean, argi eta garbi aitortu behar da dekoratzaileek eskumena dutela egokitzeko proiektua egiteko, aipatutako proiektu horrek 902/1977 Errege Dekretuaren 1. artikuluan xedatutakoa betetzen baitu, hori guztia –jakina denez– Udalaren esku dauden kontrolatu eta zaintzeko eginkizunak alde batera utzi gabe, jardueraren funtzionamenduan egokia den araudi guztiak une oro betetzen dituztela egiaztatzen dezan.

19. Azaldutakoari jarraikiz, ondorioztatu beharra dago barnealdean dekoratzaileek, aparejadoreek edo arkitekto tekniko edo arkitektoek berdin baimen dezaketela obra- eta jarduera-proiektu teknikoa, baldin eta egin beharreko obrek ez badiete eragiten egiturazko elementu erresistenteei, eraikuntzaren konfigurazioari edo obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei.

III. EAE-KO UDALAK, ETA OBRA TXIKIAK PROIEKTATU ETA ZUZENTZEKO JARDUERA-ERRESERBAK

20. Elkargoek diotenez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek ukatu egin dituzte barnealdean dekoratzaileek sinatutako obra- eta jarduera-proiektuetarako udal-lizentziak, eta eraikingintzaren eremua zabaltzea ekarri du horrek argi eta garbi barne-diseinua denaren kaltetan, baita bidegabeko jarduera-erreserba bat ere.



21. Jarduera-erreserbek jarduerak egitea lanbide jakin batera mugatzen dute, eta irismen-ekonomien aprobetxamendua eragozten dute (produktibitate eta enpresa-tamaina txikiagoarekin lotuta dago hori).

22. Jarduera-erreserben ondoriozko lehia txikiagoak eragin txarra ere badu produktibitatean eta lehiakortasunean, eta merkatu-egituraren eta enpresa-tamainaren arloan ere eragin dezake, merkatu lehiakor baten berezko sarrera-eta irteera-mekanismoek gogotik jardutea eragozten baitu.

23. Aztergai dugun kasuan, elkargoez LEA honi helarazitako informaziotik ondorioztatzen da dekoratzaile elkargokideek sinatutako obra- eta/edo jarduera-proiektuetarako baimena Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udaletatik 15etan ukatu duela tokiko administrazioak, eta ukatutako baimenak 22 izan direla guztira¹².

24. Bizkaiko zazpi udalerrietan 9 ukapen egon dira guztira, 12 Gipuzkoako zazpitan eta 1 Arabakoan¹³.

25. Ukapen horiek, bestalde, 1992tik 2016ra bitartean gertatu dira (1992: 1; 1997: 1; 1998: 2; 2000: 5; 2001: 3; 2004: 1; 2005: 1; 2007: 3; 2013: 3; 2015: 1; 2016: 1).

26. Hori horrela, ondorioztatu behar da barnealdean dekoratzaileek sinatutako obra- eta/edo jarduera-proiektuen baimenei udalek emandako ezezkoak EAEko udalen oso kopuru txikian gertatu direla –251tik 15 (% 5,9)–, eta oso aldian behin horietan (22 ukapen 25 urtean, eta haietatik 8, azken 10 urteetan); hala, bada, horrek ez du esan nahi, elkargoez adierazitakoaren kontra, jarduera-erreserba baten aurrean gaudenik, eraikingintzaren eremua argi eta garbi barne-diseinua denaren kaltetan handituta.

27. Aurrekoa gorabehera, adierazi behar da udalek, udalerrian eginiko obra txikiak kontrolatzeko ahalmenak erabiliz, ez dituztela kanpoan utzi behar horien obra-proiektuak egin ahal izateko eta obra horiek zuzendu ahal izateko legezko eskumenak dituzten profesionalak.

¹² 15 udalerririk horietatik, 7 Bizkaiko Lurralde Historikoan daude (Mungia, Portugalete, Loiu, Getxo, Leioa, Erandio eta Sestao), 7 Gipuzkoakoan (Zumaia, Pasaia, Donostia, Arrasate, Urretxu, Hondarribia eta Lasarte) eta 1 Arabakoan (Kanpezu).

¹³ Araban, Gasteizko Udalak obra- eta jarduera-proiektuaren hasiera bateko ukatzearen aurkako berraztertze errekurtsoa baietsi zuen.



28. Gogorarazi behar dugu Administrazio Publikoak Lehiaren Defentsari buruzko Legea eta, oro har, lehia askearen eremu desberdinak bermatzen dituen legeria bete behar dituela¹⁴. Horregatik, Administrazio Publikoak merkatuetan esku hartzen duenean lehia askea bermatu behar du eremu guztietan.

IV. ONDORIOAK

29. Barnealdean dekoratzaileek eskumena dute dekorazio-proiektuak egin eta idazteko, baita dekorazio-lanak zuzentzeko ere, baldin eta ez badiete eragiten nahitaezko administrazio-lizentziak jaso dituen proiektu onartuan zehaztutako egiturazko elementu erresistenteei, eraikuntzaren konfigurazioari edota obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei.

30. Halaber, arkitekto-titulua, arkitekto teknikoaren titulua edo aparejadore-titulua duenak ere egin ditzake barnealdean dekoratzaileek gauzatzeko eskumena duten jarduerak.

31. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan barnealdean dekoratzaileek sinatutako obra- eta/edo jarduera-proiektuetarako ukatutako udal-baimenak, elkargoek LEA honetan justifikatutakoak, EAEko udal kopuru txiki batean baino ez dira gertatu, eta horietan oso aldi behin. Horrek ez du esan nahi, hortaz, jarduera-erreserba baten aurrean gaudenik, eraikingintzaren eremua barne-diseinua denaren kaltean handituta.

32. Udalek, udalerrian eginiko obra txikiak kontrolatzeko ahalmenak erabiliz, ez dituzte kanpoan utzi edo baztertu behar horien obra-proiektuak egin ahal izateko eta obra horiek zuzendu ahal izateko legezko eskumenak dituzten profesionalak. Administrazio Publikoak merkatuetan esku hartzen duenean lehia askea bermatu behar du eremu guztietan eta jarrera neutrala eduki behar du.

¹⁴Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 2ko Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa. (RC 5763/2006). Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, 2007ko ekainaren 19koa (9449/2004 JB); Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, 2008ko azaroaren 4koa (5837/2005 JB).